# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia | Iruñean, 1997ko maiatzaren 15a | 34 ZK.

**A U R K I B I D E A**

F SAILA:

**Galderak:**

—Ugatza berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3.or.).
—Bonelli Arranoa berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Bertako ibai-karramarroa berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Euskarazko irakaskuntzaren eskaria betetzeko irakasleen birtziklaiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
—Nafarroako bilakaera demografikoaren gainean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen azterlanei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Nafarroako turismo sektorearen jardueraren garapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Gasolindegien Elkarteak aurkeztutako eskakizunei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Espetxeko gizarte zerbitzuen transferentziari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Mendillorri urbanizatzeko erabiliriko kontusailei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Gure Komunitatean ezarririko fidantzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
—Udalen iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean berandu argitaratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Gure Komunitateko farmazi-produktuen preskripzioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
—“Larreak sortu eta hobetzeko neurriaren gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa” izeneko azterketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
—“Lurzatiak biltzeko eta nekazaritza aldez aurretik uzteko neurrien gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa” izeneko azterketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

—“Nekazarien eta abeltzainen prestakuntza eta nekazaritza dibertsifikatzeko zentroak izeneko ekintzen gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa” izeneko azterketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

—Nafarroako Parlamentuko Batzordeen osaketa (28. or.).

—Nafarroako Parlamentuko 1996ko Kontu Orokorrei buruzko aholkularitza txostena, Kontuen Ganbarak egina (32. or.).

**F Saila:**
**GALDERAK**

# Ugatza berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hartz ugatza berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ugatza berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Berreskuratzeko Plana indarrean sartu zenetik, Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak urteko jarduketa programa guztiak onartu ditueneko datak, eta planen egileak nortzuk diren.

Ugatza berreskuratzeko planaren ondoriozko urteko jarduketa-programak eta, LIFE programaren baitan, aipatu espezierako, Pirinioan galzorian dauden ornodunak zaintzeko proiektua burutzeko garatzen direnak, berberak dira.

Hori horrela, eta LIFE proiektuak jarduketei buruzko urteroko oroit-idazkia eskatzen duenez, ez da ugatza soilik hartuko duen oroit-idazkirik egin.

1995eko azaroaren 20an kontratatu zitzaion Doñanako Estazio Biologikoari, Zientzi Ikerketen Goi Kontseiluarena berau, Nafarroako ugatza berreskuratzeko planaren garapen eta jarraipenerako laguntza teknikoa 1995 (zati bat), 1996 eta 1997 urteetarako.

2.- Zer jarduketa eraman dira aurrera, Berreskuratzeko plana onartu zenetik gaurko egunera arte, zainketa, jarraipena eta kontrola, ikerketa eta hezkuntza zein dibulgazioaren alorrean dituen helburuak erdietsi ahal izateko?

Hona burutu diren jarduketak:

Ikerketa-jarduketak:

* Habia egiten duten habitataren zehaztasunak aztertzea eta habiak egin ditzaketen tokiak identifikatzea.

* Pirinioko populazioaren bilakaera aztertzea simulazio demografikorako eredu matematikoa formulatuz, horretarako oinarritzat harturik populazioaren adinen egitura, ekoizkortasuna eta helduen eta heldu aurrekoen biziraupen indizeak.

* Beharrizan trofikoak eta bazkatoki eta mandotegietan dauden baliabideak aztertu.

– Zainketa, jarraipen eta kontrol jarduketak:

Natura Zaintzeko Zerbitzuko langileek eta Ugatza Zaintzeko Fundazioak burutzen dituzte jarduketok.

Horra jarduketak:

* Diren bikoteei jarraipena egiten zaie, azarotik aitzina, horixe baita habia egin behar duten tokia aurretik hautatzeko aroa.

* Habiak eta ugaltze-arrakasta egiaztatua duten tokietarako asteroko bisita.

* Negua bukatzear denean, Nafarroako ugatzen populazio guztien erroldak egiten dira, aldi berean. Auzoko komunitateekin eta Frantziarekin koordinatuz egiten da errolda hori.

* Hari elektrikoak zuzentzeko programa, Iberdrolarekiko hitzarmenaren bidez, espeziearendako arriskuak saihesteko.

– Hezkuntza eta dibulgazio jarduketak:

*Otsagiko interpretazio zentroan badago ugatzari buruzko modulu bat 1995etik aitzina.

* Zabalkunderako bi bideo egin dira, haragi ustela jaten duten Nafarraoko hegaztiei buruzkoa bata, eta ugatzari buruzkoa bestea, Aragoiarekin koordinatuz.

3.- Espezie honi buruzko urteko jarduketa-programako aurrekontu-zuzkidura igaro diren urte guztietako bakoitzean, baita aurten ere. Aurrekontu-lerroa, bere zuzkidura eta horretatik 1996 urtean ugatza berreskuratzeko planerako zenbat bideratu den zehaztea eskatzen da.

Hurrengo aurrekontu-kontusailak zeuden 1995eko aurrekontuan:

– Hartza-ugatza programako kalteordainak (LIFE)
Lerroa: 11160-6
Zuzkidura: 10.000.000 pezeta

– Hartza-ugatza zaintza-programaren kudeaketa (LIFE)
Lerroa: 93007-0
Zuzkidura: 30.000.000 pezeta.

Hurrengo aurrekontu-kontusailak zeuden 1996ko aurrekontuan:

– Hartza-ugatza programako kalteordainak (LIFE)
Lerroa: 12310-0
Zuzkidura: 4.000.000 pezeta

– Hartza-ugatza zaintza-programaren kudeaketa (LIFE)
Lerroa: 93007-3
Zuzkidura: 20.000.000 pezeta.

Urte biotan, gainera, beste aurrekontu-lerro batzuen zatiak era erabili dira, material grafikoa eta zabalkundekoa argitaratzea, esate baterako.

Hona ugatzari buruzko inbertsioak:

1995ean - 12.523.000 pezeta
1996an - 18.918.000 pezeta

1997ko aurrekontuetan, hartza-ugatza zaintza-programaren (LIFE) kudeaketa lerro bakarra ageri da: 93007-6 lerroa, 20.000.000 pezetako zuzkidurarekin.

4.- Izan al du aurrekontu-lerro honek aurrekontuetatik kanpoko fondorik (Estatuko laguntzak, Europako Komunitateko laguntzak, beste hainbat entitate edo erakundetakoak...) Zenbatekoak?

Jarduketa guztiok Europako Batasunak kofinantzatu ditu, LIFE programaren arabera, inbertututakoaren ehuneko 75 ordainduz.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 4a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcino Angulo

---

## Bonelli Arranoa berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Bonelli Arranoa berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Bonelli Arranoa berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa programari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- 15/1996 Foru Dekretuko Eraskineko IV. Tituluan biltzen den urteko jarduketa programa

idatzi al da? Noiz onartu den eta nortzuk egin duten jakin nahi da.

Nafarroako Bonelli Arranoa ugaltzeko planaren eraskineko IV. Tituluaren arabera (15/1996 Foru Dekretua), Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak urteko jarduketa programa egin behar du, eta bertan sartu:

1.) Ekitaldian egindako jarduketen laburpena eta aurrekontu-kontusail ezberdinetan egindako gastuen banakaketa.

2.) Hurrengo kanpainaren lehentasunezko helburu bereziak eta burutu beharreko jarduketak, material eta langile beharrizanak aurrez ikustea, beharrezko aurrekontu-zuzkiduraren kalkulua eta hurrengo ekitaldirako finantzaketa-lerroen banakaketa.

Ugaltzeko plana aplikatzeko lehen urte honetan, lege-agindu horren bi alderdiak bete direla uste dugu:

1) Jarduketen laburpenaz denaz bezanbatean: Nafarroako Bonelli Arranoa ugaltzeko planaren urteroko jarraipena azterlanaren azken oroit-idazkiarekin. Carmelo Fernández Leónek egin zuen (0965 Ebazpenaren bidez kontratatua) eta 1996ko irailean aurkeztu. Oroit-idazki horretan, 1996an zehar burutu diren jarduketak zehazten dira hurrengoak direla eta: populazioaren kontrola eta jarraipena, gizakiek egindako enbarazuaren kontrola eta zaintzeko neurriak proposatzea, populazioaren kontrol eta jarraipena hobetzeko neurriak eta zabaltze eta sentikortze neurriak, 1997an garatzekoak.

2) 1997rako jarduketak eta gastua aurretik ikusteari buruz: Bonelli Arranoa Nafarroako Foru Komunitatean berreskuratzeko LIFE proiektuarekin, 1996ko apirilean aurkeztu baitzitzaion Europako Batasunari. Aipatu proiektuan sartu dira hurrengo lau urteetarako jarduketen plana eta gastuen aurreikuspena, hurrengoak direla eta:

a) hurrengo lau urteetarako lehentasunezko helburuak.

b) 1996-1999 aldirako jarduketen urteroko programa (populazioaren jarraipen eta kontrola, azterlan osagarriak, habitataren kudeaketa eta hari elektrikoen zuzenketa eta zabaltze neurriak barne).

c) Hurrengo lau urteetarako aurrekontu eta gastuen banakaketa.

2.- Zer jarduketa eraman dira aurrera, Berreskuratzeko planak zainketa, jarraipena eta kontrola, ikerketa eta hezkuntza zein dibulgazioaren alorrean dituen helburuak erdietsi ahal izateko?

Nafarroako Bonelli Arranoaren populazioak atzera egiteko arrazoi nagusi ditugu: lehena, habiak egiteko guneetan, aldi kritikoan, gizakien enbarazuak, ezpeziaren ugalkortasuna murrizten baitute; bigarrena, elektrokuzioa eta ehiza, bai ale helduena, bai heldu aurrekoena, helduen eta gazteen hilkortasuna areagotu eta ugaltzeko gai den populazioan izandako bajak ordezkatzeko aukera gutxitzen baitute; hirugarrena, fluxu filopatrikoaren defizita, populazio mugikorraren eskasia sortzen baitu, helduak ordezkatzeko zailtasuna eta hartutako lurraldeak uztea, azken finean.

1992tik ari da Ingurugiro Zuzendaritza Nagusia hiru arazooi ekiten, jarduketak areagotu egin direlarik ugaltzeko plana onartu zenetik:

1.) Espeziearen kontrol eta jarraipena:

Ugaltzeko gai den bikote bakoitzaren jarraipen zehatza egiten da urtero, zertarako eta: a) Ugaltzeko gai den bikote bakoitzaren ugalketaren bilakaerari eta ugaltze-porrotei buruzko informazioa etengabe biltzeko; b) oraintsu utzitako lurraldeak aztertu eta behin-behineko kokalekuak egiaztatu, espeziearendako behin betiko kokaleku bihurtzeko asmoz; eta c) habiak egiteko guneak aldi kritikoak etengabe kontrolatzeko, gizakien enbarazurik izan ez dezaten ugalketan. Bonelli Arranoaren ugaltzeko alde guztiak Nafarroako babesguneen sarean (Natur erreserbak eta basa fauna babesteko eremuak, BFBE) izateak erraztu egiten du hori.

1992tik aurrera, Ingurugiro zaindarien laguntzarekin, sistematikoki egin da ugalketaren urteroko jarraipena, giza-enbarazuaren kontrola, utzitako lurraldeak eta kokaleku berriak arakatzea, eta bikoteek espazioa nola erabiltzen duten kontrolatzea. 1997 ekitaldian, otsailaren bigarren hamabostaldian hasi dira lanok, Bonelli Arranoaren jarraipen plan urterokoaren baitan.

2.- Habitata zaindu eta hobetzeko neurriak

– Enbarazuak gutxitu eta habitata hobetzea.

Hiru mailatan dihardute ugaltzeko aldian ematen diren giza-enbarazuak gutxitzeko:

a) Ingurugiro zaindariek behatu eta kontrolatu egiten dituzte habiak egiteko tokiak, aldi kritikoetan gerta daitezkeen enbarazuak saihesteko.

b) Ehiza antolatzeko planei dagokien jarraipena egiten zaie, ehiztariek enbarazurik sor ez dezaten aldi kritikoetan eta Bonelli Arranoak harrapakin gehiago izan dezan elikatzen den tokietan. Horri gagozkiolarik, basurde-uxaldiak debekatu egiten dira urtero erabiltzen diren habien inguruan, eta ahaleginak egiten dira hurbileko ehiza-barrutietako erreserba-aldeak Bonelli

Arranoak gehien erabiltzen dituen elikatze-aldeen arabera jartzeko. Babesguneendako babespeneko bazter-eremuak oraintsu onartu direnez, gainera, lehen aipatu bi neurriendako mesedegarri izanen dira.

c) Neurri zehatzak hartuko dira ekitaldi honetan, habiak egiteko guneetatik jendea igarotzea ekiditeko. Hurrengoak ari dira aztertzen, besteak beste: Kaparretako natur erreserba zeharkatzen duen bidexka bat markatu eta hortik igarotzea debekatu eta pista bat ixtea; eta Etxauriko BFBE-an dauden eskalatzeko bide batzuk markatu edota desekipatzea. Murrizteko neurriok, ukitutako taldeen adostasunarekin (nekazariak, udalak, eta Nafarroako Mendi Federazioa) hartu behar dira, hori gauzak berez dakarrena da. Harremanetan jarri dira ukitutako entitateekin eta adostutako neurriak hurrengo udan martxan jartzeko asmoa dago.

– Hari elektrikoak zuzentzea:

1989tik aitzina dihardute elektrokuzioaren arazo gordina, babestutako espezieek landalurreko hari elektrikoekin tupust egitea, konpontzeko ahaleginean. Bonelli Arranoa ugaltzeko planaz denaz bezanbatean, Nafarroako Gobernuak FENSA-Iberdrolarekin izenpetu duen II lankidetza-hitzarmenaren baitan, azken urteotan, eta ugaltzeko plana onartu zenetik, batez ere, lehentasuna eman zaio Bonelli Arranoaren gune kritikoei eragiten dieten instalazioak zuzentzeari, alegia, habiak egiteko guneetatik gertu daudenak, larreratzeko toki ezagunak, oraintsu utzitako lurraldeak eta ugaltzeko gai ez diren Bonelli Arrano aleak behin-behinekoz pausatu diren tokiak.

Bonelli Arranoaren alde kritikoetan istripurik gerta ez zedin, 9 eskuhartze izan ziren 1989-1995 aldian, 17.029.095 pezeta jo zutelarik. 1996an, ugaltzeko plana onartu ondoren, 8 instalazio zuzendu dira eta 20.065.621 pezeta jo du gastuak. Nafarroako Gobernuak ordaindu du %75a eta Iberdrolak gainerako %25a.

Hurrengo 4 urteetan, LIFE proiektuan aurreikusitako jarduketen baitan, 16 lerro elektriko zuzenduko dira, Bonelli Arranoaren gune kritikoei eragiten dietelako. Aurrekontuak 24.000.000 pezeta jotzen du eta Europako Batasuneko LIFE fondoek %60 ordainduko dute. Iberdrolarekin izenpetu den hitzarmenaren antzekorik ezean ere, LIFE fondoak eskuratzeak bide emango du enpresa elektriko eta partikularren lerro elektrikoetan esku hartzeko, gaur arte ez baitzegoen horretarako aurrekontukontusail berezirik.

3) Fluxu filopatrikoaren defizita gutxitzea:

Nafarroako Bonelli Arranoaren populazio-dinamikan antzeman den defizit filopatrikoa hainbat faktoreren menpe dago, eta horietako batzuek gure jarduteko eskualde-eremua gainditu egiten dute. Hartara, sorlekura itzultzen den heldu eta heldu aurrekoen kopurua (fluxu filopatrikoa deritzo), hurrengoen araberakoa da:

a) finkatutako bikoteen eskualde-ekoizkortasunaren araberakoa,

b) barreiatu aurretiko gazteen hilkortasunaren araberakoa,

c) batez ere, Mediterraneoko arroan zehar barreiatzen diren aldiko hilkortasunaren araberakoa,

d) ale gazteak biltzen diren guneen hurbileko inguruetan bakanterik izatearen arabera, eta

e) Nafarroan ugaltzen diren ale helduen hilkortasunaren arabera.

Agerikoa denez, ugaltze planak gure Komunitatean gertatzen diren faktoreetan baino ezin dezake zuzeneko eraginik izan (eskualdeko ekoizkortasuna, barreiatu aurreko gazteen hilkortasuna eta helduen hilkortasuna). Iruzkindu ditugu hiru alderdioi buruz aurreikusi diren jarduketak. Beste alde batetik, eta barreiatze aldiko gazte-hilkortasuna eta inguruetako helduen hilkortasuna gutxitzeko, Mediterraneo inguruko beste autonomi elkarte batzuekiko hitzarmenak egin behar dira, beraien ugaltze planak onartu eta Nafarroan erabiltzen diren neurrien antzekoak har ditzaten. LIFE Proiektua aipatu komunitateetara ere hedatzea izan daiteke etorkizunean lankidetza hori erdiesteko biderik egokiena.

Defizit filopatrikoa gutxitu eta lurraldeak ez uzteko azken neurria litzateke, gatibu hazteko zentroetatik datozen ernaldutako arrautzak edota ale gazteak sartzea Nafarroan, edota sendatze-zentroetatik ekarritako ale helduak sartzea. Horrelakoetan, gure populazioaren egoera larria denez, beste autonomi elkarteen eta ICONAren lankidetza behar da. Ildo horri gagozkiolarik, bada Bonelli Arranoa gatibu hazteko Estatuko programa bat. ICONAk koordinatzen du eta Toledoko Sevilleja de la Jarako zentroan ari da burutzen. Harremanetan ari dira programa horretan lankidetzan sartzeko eta ugaltzeko gai diren helduen, gatibu hazitako gazteen eta ernaldutako arrautzen kopuru nahikoa izatera heltzeko zain daude naturan berriro sartzeko.

4.- Sentikortzea eta zabalkundea:

Hurrengo urteetan, hiru mailatan hartu nahi dira neurriak Nafarroako herritarrek espeziea hobeto ezagutu eta onar dezaten:

a) Herritarrentzako, oro har. Zabalpen-liburuska argitaratuko da, hurrengoak azaltzeko: Bonelli Arranoak gure Komunitatean duen egoera larria, ugaltzeko plana eta haren edukia eta Nafarroan galtzeko arriskurik handiena duen espezie ornitikoa zaindu eta ugaltzeko hartu diren neurriak. Beste alde batetik, modulu interaktibo bat eskainiko zaio Bonelli Arranoari Irunberriko Naturaren Interpretazio Zentroan.

b) Gazteentzako eta eskola umeentzako. Hezkuntza maila ezberdinetarako ikas unitateak egingo dira, ikusentzunezko materiala eta guzti. Nafarroan diren habiak egiteko tokietatik gertu dauden ikastetxeetan banatuko dira materialok.

Datozen urteetan enkargatuko zaie enpresa espezializatuei materiale grafikoa eta ikusentzunezkoa prestatzea eta kontratazioa lehiaketa publikoaren bitartez eginen da

3.- Espezie honi buruzko urteko jarduketa programako aurrekontu-zuzkidura. Aurrekontu-lerroa, bere zuzkidura eta horretatik 1996 urtean Bonelli Arranoa berreskuratzeko planerako zenbat bideratu den zehaztea eskatzen da, baita 1997 urterako aurreikuspenak ere.

1996ko aurrekontuan hurrengo aurrekontukontusaila zegoen: 31210-6092-4421, Animalia populazioen eta haien habitaten kudeaketa izenekoa, 12.370-4 lerroa, zuzkidura, 30 milioi pezeta.

Lerro horretatik, 1.250.000 pezeta erabili ziren Bonelli Arranoaren jarduketa planerako.

1997ko ekitaldirako, LIFE programako jarduketak aurreikusi dira, 17.000.000 pezetatan, horra:

Jarduketak

Populazioa behatzea, jarraitzea eta kontrolatzea:

– Eskualde-bateragilea kontratatzea.

– Natur erreserba eta ingurugiro zaindarien materiala, ekipamendua eta egokitze ikastaroak

– Espazioaren erabileraren eta gazte-barreiatze prozesuaren azterketa, habitataren azterketarako laguntza.

Habitata zaintzea eta kudeatzea:

– Lerro elektrikoak zuzentzea.

– Babesguneetako jarduketa zehatzak (eskalada-bideak ixtea, bideak markatu eta ixtea)

Zabaltzea, sentikortzea eta kontzientziatzea:

– Espezieari buruzko zabalkunde-triptikoa argitaratzea.

– Irunberriko Naturaren Interpretazio Zentroan unitate tematikoa egin eta mantentzea.

– Hezkuntza maila ezberdinetara egokitutako ikas unitateak programatzea, espezieari buruz.

4.- Izan al du aurrekontu-lerro honek aurrekontuetatik kanpoko fondorik (Estatuko laguntzak, Europako Komunitateko laguntzak, beste hainbat entitate edo erakundetakoak...) Zenbatekoak?

LIFE proiektua, 1997-2000 aldirako eman dute eta espeziean ekitaldi ezberdinetan inbertututako kopuruen ehuneko 75eko dirulaguntza emango dute.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 3a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcino Angulo

# Bertako ibai-karramarroa berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak bertako ibai-karramarroa berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa-programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak bertako ibai-karramarroa berreskuratzeko planaren barruko urteko jarduketa programari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- 143/1996 Foru Dekretuko Eraskineko IV. Tituluan biltzen den urteko jarduketa programa idatzi al da? Noiz onartu den eta nortzuk egin duten jakin nahi da.

Hona 1997rako jarduketen plana:

I. Zaintza eta kudeaketa.

A. 1996an egindako kontrola gainditu zuten urmultzoen birpopulazioa.

B. Birpopulatzeko gai izan daitezkeen ur multzoetan biziraupen kontrolatuaren saioekin jarraitzea.

C. Ibai karramarro espezieei buruz izan daitezkeen zaintza eta kudeaketari buruzko bestelako planekiko azterketa alderatua egitea.

D. Bertako karramarroa hazteko tegirako kudeaketa plana egitea.

II. Jarraipena eta kontrola

A. Birpopulaziorako bertako aleen eta Nafarroan diren karramarro amerikarraren populazioen osasun kontrola.

B. Birpopulatutako populazioen jarraipena.

III. Hezkuntza eta zabalkundea.

Ameriketako espezieak, seinaleko karramarroa edo paduretakoa konparazione, sartzea izanik bertako karramarroa berreskuratzeko eragozpenik larrienetakoa, hurrengoak aurreikusi dira:

A. Nafarroan dauden ibai-karramarroen espezieei buruzko triptiko informatiboa.

B. Prentsa oharrak eta zabalkunde artikuluak.

C. Zabalkunde bideoa egitea.

IV. Ikerketa

A. Karramarroaren izurritea eragiten duen onddoaren anduien aldakortasuna ikertzea, Nafarroan.

B. Bertako karramarroaren populaziorik emankorrenen dentsitateak aztertzea.

1997ko urtarrilaren 20an onartu zuten plana Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko teknikariek eta Javier Diéguezek, karramarroaren plana jarraitzeko Departamentuak kontratatu teknikaria, berau.

2.- Zer jarduketa eraman dira aurrera, Berreskuratzeko planak zainketa, jarraipena eta kontrola, ikerketa eta hezkuntza zein dibulgazioaren alorrean dituen helburuak erdietsi ahal izateko?

Hurrengo jarduketak aurreikusten ditu bertako ibai-karramarroa berreskuratzeko planaren garapenak 1996-97 aldirako:

1. Ibai karramarro espezieei buruzko zaintza eta kudeaketari buruz Nafarroan indarra duten bestelako planekiko azterketa alderatua egitea.

2. Bertako ibai-karramarroa (Austropotamobius pallipes) berreskuratzeko gai izan daitezkeen ur multzoak hautatzea.

• Inbentarioa

• Biziraupen kontrolatuko saioak

3. Bertako espeziea berriro sartu eta populazio egonkorrak jarraitzea.

4. Erabilitako aleen osasun kontrola.

5. Ingurugiroko zaindariek egin beharreko lanaren protokoloak egitea.

6. Bertako karramarroa hazteko tegirako kudeaketa plana egitea.

7. Beste lurraldeetan egin diren esperientziak aztertzea.

1996an egindako lanen laburpena:

Nafarroako bertako ibai-karramarroen populazioen kopurua eta kokalekuari buruzko informazioa eguneratu da: 55 populazio A. pallipes dago, gutxienez, gure lurraldean. Foru Komunitatea dugu, beraz, Estatuan populazio-kopururik handiena duen eskualdeetako bat.

Beste alde batetik, populazio aldi ezberdinen lan-protokoloak taxutu dira. Aurten, Ingurugiroko zaindariek lehenengo bi faseak burutu dituzte (toki egokienen inbentarioa eta biziraupen saioak) eta emaitza onak izan dira. Beraz, hainbat ikastaro hautatu dira bertako ibai-karramarroa berriz sartzeko 1997an.

Azkenik, 1997ko birpopulazioei aurre egiteko moduko ale kopurua emateko gai diren populazio batzuk aurkitu dituzte.

Laburbilduz, lehen esperientziak positiboak izan dira. Horretan oinarriturik, planak bertako ibai-karramarroaren eremutzat jotakoaren zati asko eta askotan berreskuratu ahal izanen da espeziea.

4.- Izan al dute jarduketa hauek aurrekontuetatik kanpoko fondorik (Estatuko laguntzak, Europako Komunitateko laguntzak, beste hainbat entitate edo erakundetakoak...) Zenbatekoak?

3.000.000 pezeta jotzen du 1997rako aurreikusi den aurrekontuak eta teknikari arduradunaren lanei dagokie. Gainerako lanek ez dute gasturik ematen, zaindariek egiten dituztelako.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 3a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcino Angulo

---

# Euskarazko irakaskuntzaren eskaria betetzeko irakasleen birtziklaiari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak euskarazko irakaskuntzaren eskaria betetzeko irakasleen birtziklaiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 12a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du euskarazko irakaskuntzaren eskaria betetzeko irakasleen birtziklaiari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Guztira, laurehun eta hogeita sei irakaslek egin dituzte birtziklaia ikastaroak1983tik hona.

2.- Gehienetan, birziklatzen diren irakasleak D eredua duten ikastetxeetatik datoz eta ikastetxe berean jarraitzen dute. Jakina denez, indarreko legeriak ezarri du euskaraz birziklatzen diren langileek hizkuntza horretako irakaskuntza eman behar dute bost urtez, gutxienez. Bost urteok igarota, deitzen diren lehiaketetan har ditzakete parte.

3.- Irakasle batek lekualdatze-lehiaketaren batetan parte hartzen baldin badu ez du arrazoirik azaldu behar.

4.- Irakasleen birtziklaia programaren ebaluazioa hezkuntza sistema ebaluatzeko prozesu orokorraren zain dago, Kalitate eta Ebaluazioaren Institutu Nazionalak (INCE) koordinatzen baitu eta Estatuko autonomi elkarte guztiak hartzen baititu. Edonola ere, aipatu ebaluazioaren ondorioz birtziklaia programari buruzko neurriren bat hartu beharra baztertzen ez den arren, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren nahia da hezkuntza-sistemaren beharrizanei arreta egitea, indarreko legeriaren baitan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoaren babespean.

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Nafarroako bilakaera demografikoaren gainean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen azterlanei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako bilakaera demografikoaren gainean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen azterlanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 12a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako bilakaera demografikoaren gainean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin dituen azterlanei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, ikasturtez-ikasturtez ezagutzen du urteko plangintza mugatzen duen estatistikaren bilakaera. Joan den irailean, Departamentu honek Foru Parlamentuari bidali zizkion aipatu estatistikak azken urteez dakartzan datuak. Beraz, zure esku daude.

2.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak azterlan proiektibo bat egin nahi du, bere esku dituen datuak oinarritzat hartuz, ikaslegoaren bilakaera demografikoa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea Foru Komunitatean bere osotasunean ezartzea aintzat hartuko dituena, 1992an Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzari buruzko eskola-plangintza finkatzeko egin zuen bezala. Azterlan horri beste bat gehitu beharko litzaioke, sistemaren kostuei buruz, hurrengoak kontutan hartzeko: lurralde unitateak, sistemaren elementuak (ikastetxeak, unitateak, ikasleak, irakasleak) eta ikastetxeen finantzaketak eta sostenguak berarekin dakartzan hainbat faktore.

3.- Azterketa horren helburua litzateke, azterketa horietan eskuarki erabiltzen diren metodoak erabiliz, Nafarroako hezkuntza sistemaren bilakatzeko joera sakon ezagutzea, Departamentuak hurrengo urteetarako plangintzan orientabideak izan ditzan, herritarren konstituzio-eskubideak errespetatuz, eta men eginez Foru Parlamentuaren nahiari, aipatu plangintzan berebiziko eragina duten legegintza-erabaki eta egintzetan adierazten den horri, alegia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoaren babespean.

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Nafarroako turismo sektorearen jardueraren garapenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Nafarroako turismo sektorearen jardueraren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 21eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 14a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak, Ramón Bultó Llevat jaunak Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Nafarroako turismo sektorearen jardueraren garapenari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Uste al du Gobernuak Nafarroan turismoaren sektoreko jarduera nahiko garaturik dagoela?

Ez dagoela batere garatuta da uste dena, hain zuzen ere; are, uste da unea dela plangintzan aritzeko, etorkizunean era eutsigarri eta inguruarekiko begirunezkoa den turismo garatua izatea ahalezkoa bihurtuko duen plana sortzeko, ingurugiroa esaten dugula natura, ondarea, ohiturak eta bertako biztanleria esaten ari garelarik; hortaz, lehen unean beharrezkoa den dinamizazio efektua lortu delarik, parametro serioak sartzeko unea da, laguntzak planifikazio-tresna garrantzizkoak dirata.

2.- Baldin eta 1993 urteaz geroztik turismo-jarduera garatzeko eskaerak gora egin badu, zergatik utzi ditu bertan behera Nafarroako Gobernuak jarduera honentzako laguntzak?

1993 urteko laguntza-eskaerako espedienteak 22 izan ziren, eta landetxeena, 28. Laguntzek 130.511.486 pezeta egin zuten.

1997 urteko hasierako eskaerak, proiektu-espedienteetan, 84 dira, eta landetxeenak 93, eta laguntzek 769.019.736 pezeta egiten dute.

Egoerak bilakaera handia izan duela kontuan harturik, normala da pentsatzea azpiegitura gehiagoren ezarpena komenigarritzat jotzen duten parametroak bere baitan biltzen dituzten laguntzak taxutu behar direla, adibidez kanpinak zenbait tokitan, adibidez dauden azpiegituretako zerbitzuen kalitatea hobetzea lehiakortasun handiagoa eskatu ahal izateko, edo eta eskualdeko nortasunaren arabera irudi berriak sortzea, eta, jakina, aurkezten diren proiektuen bideragarritasun-maila eskatzea, Pymes direlakoen zorpetzea handia den alor batez ari garela kontuan harturik.

Beste alde batetik, aurrekontuak egiterakoan zuhurtasun-irizpideak hartu direla kontuan harturik, gertatzen ahal da gaur egun laguntza eskatzen duen eskatzaile bat 1998 urtea oso aurreratuta dagoen arte atenditua ez izatea.

Beraz, hau berandu datorren planteamendua da, alorraren bilakaera ikusirik, gutxienez orain urtebete ekin behar zitzaiolako.

3.- Turismo-jarduerarik handieneko balizko eremuak Nafarroako mendialdean egonik, zergatik utziko dio Nafarroako Gobernuak Mendialdean jarduera hau sustatzeari, eta eutsiko die Erdialdean eta Erriberako dirulaguntzei, hor eskaerarik ez dagoelarik?

Dekretua bertan behera uztea Nafarroa osoan izan da, eta Pymes direlakoen esparruan, gaur den egunean, edonola ere, mendialdea hobeki ateratzen delarik, bere beharrak dinamizazio eta sustapenaren aldetikoak ere badirelako, eta bide hau irekirik dago elkarte, udal eta partzuergoen deialdien bitartez, Erdialdean eta Erriberan ekimen pribatuko azpiegiturak behar diren bitartean.

4.- Garapen-bide hau murrizten bada, zer beste aukera proposatzen ditu Nafarroako Gobernuak Mendialdeko gainbehera ekonomikoa gainditzeko?

a) Lehen ere esan den bezala, gauza da azterketa behar bezalakoa egiteko balio duen lanabesa taxutzea, horrela ziurtatu ahal izan dadin sartzen diren proiektuak bermaturik egotea, eskaera hau, hainbat aldiz, mendialdeko zenbait sektoretatik egin dena izaki.

b) Mendialdeko eskualdeak Nafarroako Mendialdea deitzen den merkaturatze proiektuaren inguruan batu dira, Merkataritza, Turismo eta Pymes Estatuko Idazkaritzak finantzatzen dituen proiektuekin, Nafarroako Gobernua ere bertan sartuta dagoela.

c) Nafarroako Turismoaren Planifikazio Osoa izenekoa badago, zeina, besteak beste, Nafarroako sustapena eta merkaturatzeari ekingo baitio, Nafarroako Tursimoaren aldeko Fundazioa garatuko duen proiektu baten bidez, laster abian jarriko dena, behin bideragarritasunari buruzko eta administrazio mailako biderapenak onartu eta berehala.

Iruñean, 1997ko martxoaren 7a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## Gasolindegien Elkarteak aurkeztutako eskakizunei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Gasolindegien Elkarteak aurkeztutako eskakizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 7ko 16 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 14a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Gerardo López eslava Foru Parlamentari jaunak Gasolindegien Elkarteak aurkeztutako eskakizunei buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Gasolindegien Elkarteak aurkeztu eskakizun multzoaren edukiaz. Gobernuak zer jarrera duen horietako bakoitza dela eta. Horrez gain, horiei jaramon egiteko erabili nahiko lituzkeen bideak, bai ekonomi, bai arau arlokoak.

Nafarroako Gasolindegien Elkarteak errepide-segurtasuna, sarrerak eta distantziei buruz aurkeztu dituen proposamenek errepideen gaineko arautegia aplikagarri zaien erregaia emateko instalazio guztiak berdin tratatzea planteatzen dute.

Gaur egun dagoen ezin elkarretaratzea egungo indarreko arautegiak dioenaren ildotik dator: alde batetik Gasolindegiak Foru Komunitateko komunikazio bideetan paratzea arautzen da (ekainaren 5eko 130/1995 Foru Dekretua), eta beste alde batetik azaroaren 24ko 1905/95 Errege Dekretuak -lehen aipatu Foru Dekretua baino beranduagokoa, beraz- ondorengo sailkapen hau ezartzen du, hots, Gasolindegiak (3 edo petroliozko ekoizkin gehiago saltzen ditu) eta Hornidura Unitateak (3 petroliozko ekoizkin edo gutxiago saltzen ditu).

2.- Zehazki, zer berritasun sartu nahi ditu segurtasunari buruzko arau, eragiten dien irispide eta distantzien araubide, eta abarretan. Noraino heltzen dira?

Aurreikusten dena da130/95 Foru Dekretua egokitzea, errepide-segurtasuna eta irispideen gaineko irizpideak batutzeko, instalazio bakoitzean zenbat petrolizoko ekoizkin saltzen den aintzat hartu gabe.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut, Parlamentuko Erregelamenduko 181. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 10a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

---

## Espetxeko gizarte zerbitzuen transferentziari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak espetxeko gizarte zerbitzuen transferentziari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 28ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 14a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den Isabel Arboniés Foru Parlamentari andreak espetxeko gizarte zerbitzuen transferentziari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Justizia mailako transferentzien kasuan, nola egituratuko dira Nafarroako Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak?

Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak baliabide espezializatutzat jotzen dira, eta haien helburua

askatasuna kendu zaien edo eta askatasuna kentzearen aukerako neurrien pean dauden pertsonak gizarteratzea da, baita hauen familiak atenditu ahal izatea ere, aholkuak emateko eta babesteko mekanismoen bidez, hasierako ezberdintasunak eta honekin lotzen diren gizarte-arazoak gainditu ahal izateko.

Justizia arloko transferentzia epe ertain edo luzera egin daitekeela jotzen da, eta Nafarroako Gobernuak nola garatzen duenaren arabera egituratuko dira Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak.

Esan behar da, baita ere, Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate Departamentuaren, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko lankidetza hitzarmen bat badagoela, hainbat jarduketa martxan jartzeko helburuarekin, ondoren Nafarroan Gizarte Baztertzearen aurkako Borroka Plana prestatu eta abiarazteko.

Jarduketa hauen barruan ikerketa kualitatiboak garatzen dira, egoera-tipoen araberako monografien bidez antolatuta.

Alde horretatik, Espainiako Estatuko espetxeetan zenbat preso nafar dagoen ikertzen ari da, Kode Penla berriaren laguntzaz espetxeratuen zenbakia ahalik eta gehien gutxiagotu ahalko litzatekeelako hipotesitik abiaturik, eta espetxea ordez beste aukera batzuk erbiltzeko asmoz.

2.- Eskaerarik jaso al da Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak inon paratzeko? Zer urrats egin dira?

Ez da inolako eskaera ofizialik jaso Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak inon paratzeko.

Iruñean, 1997ko martxoaren 7a

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

---

# Mendillorri urbanizatzeko erabiliriko kontusailei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Mendillorri urbanizatzeko erabiliriko kontusailei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 21eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 14a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Mendillorri urbanizatzeko erabiliriko kontusailei buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

• Esan bedi 1995 eta 1996 urteetan zer kontusail ekonomiko eta zer kontzeptupean eman diren ohiko ondasun eta zerbitzuen zein inbertsio errealen gastu-kapituluetan Mendillorriko urbanizazioarentzat. Esan bedi, halaber, 1997ko aurreikuspena zein den.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 1995 eta 1996 urteetan erabili dituen aurrekontu-kontusailak eta 1997ko aurreikuspenak, Mendillorriko urbanizaziorako, honako hauek dira:

1995 urtea

92100-2269-4311 kontusaila, Lurzoru eta etxebizitza parke publikoaren mantenua, kudeaketa eta administrazioa, ohiko gastua, 2. kodea, eta 92110-6000-4311 kontusaila, Lurzorua erostea eta etxebizitzak sustatzea, inbertsioa, 6. kodea, honela banaturik:

| | |
|---|---|
| – Urbanizazioko mantenu-gastuak | 74.004.098 pezeta |
| – Elektrizitate gastuak | 7.802.045 pezeta |
| – Urbanizazioko errematеak | 3.689.612 pezeta |
| – Oinezkoentzako igarobideak erreformatzea | 2.429.766 pezeta |
| 1995 urtea, guztira | 87.925.521 pezeta |

1996 urtea

32200-2276-4311 kontusaila, Lurzoru eta etxebizitza parke publikoaren mantenua, kudeaketa eta administrazioa, ohiko gastua, 2. kodea, honela banaturik:

| | |
|---|---|
| – Urbanizazioko mantenu-gastuak | 71.540.410 pezeta |
| – Elektrizitate gastuak | 9.136.800 pezeta |
| 1996 urtea, guztira | 80.677.210 pezeta |

1997 urteko aurreikuspena

32200-2269-4311 kontusaila, Lurzoru eta etxebizitza parke publikoaren mantenua, kudeaketa eta administrazioa, ohiko gastua, 2. kodea, honela banaturik:

| | |
|---|---|
| – Urbanizazioko mantenu-gastuak | 82.258.287 pezeta |
| – 4. fasea urbanizatzeko eraispenak | 20.000.000 pezeta |
| 1997ko aurreikuspena, guztira | 87.925.521 pezeta |

• Esan bedi 1995 eta 1996 urteetan zer kontusail ekonomiko eta zer kontzeptupean eman zaizkion ohiko ondasun eta zerbitzuen zein inbertsio errealen gastu-kapituluetan Eguesibarko Udalari Mendillorriko urbanizazioa dela aitzakia. Esan bedi, halaber, 1997ko aurreikuspena zein den.

Eguesibarko Udalaren aldeko epaia betez, Nafarroako Gobernuak 215.666.970 pezeta eman zion. Kopuru hau, Udalari lagapenak zirela-ta zegozkion hirigintza-probetxamenduen prezioaren eta berari zegozkion hirigintza-obren prezioaren arteko diferentzia zen. Ordainketa hau 31100-4600-4321 kontusaila, 11000 proiektua, 10695-5 lerroaren kontura, Epaiak betetzea. Eguesibarko Udalarekiko hitzarmena izenekoaren kontura, 4. Kodea, ohiko transferentziak.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 10a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## Gure Komunitatean ezarririko fidantzei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak gure Komunitatean ezarririko fidantzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 21eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 14a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak gure komunitatean ezarririko fidantzei buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Nafarroako Gobernuak kontrolatzen al du zenbat fidantza eratu den gure Foru Komunitatean, eta zenbat egiten duten?

Bai, hiru hilabetero kontrolatzen da, kutxa-kontaketaren bidez, eta Hiri Jabegoaren Ganbarak bidaltzen dituen zerrenda eta efektuen bidez.

2.- Zenbat fidantza eratu da Nafarroan eta zenbat egiten dute?

1996ko abenduaren 31n Nafarroako Gobernuaren paper ofizialean eraturiko fidantzen zenbatekoak 648.346.195 pezeta egiten zuen. Aintzat hartu behar da 1985 urtera arte fidantza hauek Etxebizitza Publikoa Sustatzeko Institutuaren paper ofizialean eratzen zirela, hau Estatuko Administrazioaren menpeko erakundea delarik.

3.- Zertan erabiltzen dira fidantza horiek? Fidantza hauek, ez ahaztu, gordailatu egin behar dira, eta ez errentamendu egileen esku utzi.

Fidantzen zenbatekoa gordailatu egiten da, eta ez da errentamendu egilearen esku gelditzen, eta errentamendu-kontratua iraungitzen denean maizterrari itzultzen zaio.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 10a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# Udalen iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean berandu argitaratzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak udalen iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean berandu argitaratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Udalen iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean berandu argitaratzeari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

I. Aldez aurretiko kontsiderazioak

Jakina denez, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Euskarari buruzko Foru Legeak hala agindurik, bi argitalpen bereiz eta aldiberekotan argitaratzen da: gazteleraz bata eta euskaraz bestea.

Nafarroako Gobernuko zerbitzuek (Idazkaritza Orokorra eta Antolamendu Zuzendaritza Nagusia, Barne eta Lehendakaritza Departamentua eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hizkuntza Politika Zuzendaritza Nagusia) egiten dituzte zuzenean aldizkaria prestatzeko lanak, inpresioa eta banakuntza ezik. Inpresioa enpresa pribatu batek egiten du, eta banakuntza Posta zerbitzuak.

Honako hauek dira Aldizkaria prestatu, inprimatu eta banatzean egin beharreko lanak:

1. Barne Erregimeneko Zerbitzuak testu guztiak hartu eta euren trataera mekanografikoa egiten du. Testu prozesatu hauek, ondoren, Argitalpenak Osatzeko Bulegora bidaltzen ditu (gaztelerazko edizioa) eta Hizkuntza Politika Zuzendaritza Nagusiko Itzulpen Atalera (euskarazko edizioa)

2. Nafarroako Foru Komunitatea eta Nafarroako Toki Administrazioa sailetan sartu beharreko testuak euskaratzea.

3. Aldizkariaren gaztelerazko bertsioa konposatzea, eta, testuak euskaratu direlarik, euskarazko bertsioa konposatzea, ondoren inprimategira bidaltzen direla bi bertsioen euskarri informatikoak.

4. Bi Aldizkariak inprimatzea, eta aleak plastikozko poltsetan sartzea.

5. Posta Zerbitzuan uztea, harpidedunei bana ziezaien, eta Gobernuko Postaritzan uztea, barnetik banatzeko.

II. Atzerapenaren arrazoiak

Ondorengo hauek dira atzerapena justifikatzen duten arrazoiak:

1. Gero eta testu gehiago argitaratzen direla, eta, beraz, Aldizkariak gero eta orri gehiago dituela. 1993/1996 aldia aintzat harturik, aldizkariaren orrien bilakaera honako hau izan da: 1993 urtean 12.076 izan ziren eta 1996 urtean, aldiz, 16.250; beraz, 4.174 orri gehiago, hau da, %34. 1996 urtea bakarrik hartzen badugu aintzat, ikusiko dugu urte hartan 1.534 orri gehiago izan zirela (%10,5). Eta hau horrela den bitartean, Aldizkaria prestatzen aritzen diren hiru unitateetan ez da inolako plantilagehiagotzerik izan. Honako hauek dira lan horretan ari diren unitateak: testuen kontrola eta trataera informatikoa (Lehendakaritza Idazkaritza Nagusia), euskaratzeko unitatea (Hizkuntz Politika Z.N.) eta Konposaketa (Antolamendu Z.N.).

2. Bada arrazoi espezifikoa, gainera, nahiz eta iragankorra izan, honako hauxe, hain zuzen: 1996 urtearen bukaeran eta 1997ko orain arteko zatian Udal, Kontzeju eta Mankomunitateen zerga-ordenantzen testu osoak argitaratzen ari direla, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezartzen duena betez, eta honek eskatzen du langile pilo bat horretan aritzea, batez ere itzultzaileen aldetik, testu asko dagoelako, eta oso luzeak, eta gainera Toki Entitate asko dagoelako. Gorabehera hau bere eragina izaten ari da azken hilabeteetan, eta hurrengoetan ere bere eragina izango du.

3. Oso testu luzeak maiz argitaratzen direla (irakaskuntza-curriculumak, zerga-ordenantzak, lanpostuak betetzeko deialdiak, erregelamenduak, flora eta faunari buruzko katalogoak, udalez gaindiko eragina duten proiektu sektorialak, eta beste batzuk) kontuan hartu behar da, hauen tratamendu informatikoak eta itzulpenak langile asko horretan aritzea eskatzen baitute, eta hauen kariaz

laburragoak diren testuak argitaratzea oztopatzen da eta atzeratzen.

4. Testuak euskaratzeari dagokionez, zehazki, honako kontsiderazio hauek egiten ahal ditugu:

– Testuak euskaratzeak, gero euskaraz den Aldizkarian argitaratzeko, askoz denbora gehiago behar du, bistan denez, gaztelerazko Aldizkarian argitaratzen diren testuen tratamendu informatiko soilak edo eta, hala denean, mekanografikoak baino.

– 1996ko urritik 1997ko otsailera doan aldia aztertzen badugu, biak barne sarturik, ikusten da Aldizkariko Toki Administrazioa izeneko sailerako 780 agiri euskaratu zirela, agiri horiek 3.243 orri zeuzkatelarik; euskaratzen joan den denbora, batez beste, 3,8 egun agiriko izan da, eta denbora hau moduloka banakatzen badugu, honako hau izango dugu:

• 2 egun baino gutxiago, 377 agiri, 1.139 orriekin.

• 2 eta 7 egun artean, 246 agiri 1.025 orriekin.

• 7 egun baino gehiago, 157 agiri 1.061 orriekin.

– Hau da gaur egun, dauden giza baliabideak egonik, Toki Administrazio Saileko testuak euskaratzeko behar den denbora. Denbora hau ezinbestekoa da testuak jaso, euskaratu, zuzendu eta igortzeko. Denbora-epe hau laburragotzeko, agerikoa denenz, itzultzaile gehiago behar da, ezin baita argitaratu beharreko testu-kopurua gutxiagotu (orain arte salbuespen bakarra egin da, hirigintza-arauak argitaratzeko orduan).

– Toki Administrazioko testuen itzulpenarekin batera Foru Komunitateko Administrazioko testuak ere euskaratzen dira, eta hauei dagokien orri-kopurua oraindik handiagoa da, nabarmen handiagoa, gainera.

5. Legeak hala aginduta (epeak betetzea) zenbait testu argitaratzeari (jarduera sailkatuen iragarkiak, Epaitegi eta Auzitegien ediktuak, enkanteak eta lehiaketak, lanpostuen deialdiak, eta abar) lehentasuna eman beharrak horrelako legeagindurik ez duten beste hainbaten atzerapena dakar ondorio.

6. Udal eta Kontzeju askotan ez dute baliabide informatikorik, eta honen ondorioz Barne Erregimena Zerbitzuak mekanografiatu eta prozesatu behar izaten ditu berriro.

7. Toki ezberdinetan dauden zenbait zentrok Aldizkaria prestatzean (testuak jaso eta prozesatzea, konposaketa, itzulpena, inpresioa, administrazioa) parte hartzeak badu bere ondorioa, hots, komunikazioetarako eta agiriak batetik bestera pasatzeko denbora gehiago behar dela.

8. Edonola ere, Aldizkarian argitaratzen diren testuen atzerapena zenbatzerakoan, ez du balio argitaratzen den testuak daukan data hartu eta Aldizkarian datorren datarekin konparatuz, atzerapena kalkulatzea; izan ere, testua, izenpetu eta gero, postara bidaltzen da, eta hor atzerapenak egon daitezke, eta atzerapenak egon daitezke, baita ere, Postak jasotzaileari (Barne Erregimena Zerbitzua) emateko orduan. Hau gertatu dela ikusi ahal izan da kexuak izan diren batzuetan. Beste alde batetik, Aldizkaria Posta Zerbitzuaren bidez banatzen delarik, Nafarroako Gobernuak ezin ditzake bereak bezalakoak har Zerbitzu horri egotzi behar zaizkion atzerapenak.

9. Azkenik esan behar da Aldizkari Ofiziala prestatzeko lanetan aritzen diren langileek premiazko lanek eskatzen dituzten tentsioa eta dedikazio handiarekin aritzen direla. Beste alde batetik, esan behar da telefonoaren bidezko harreman etengabe eta arina izaten dela aldizkariaren prestatzaileen eta testuekin interesaturik daudenen artean, euren argitalpen-prozesuan zertan dagoen azaltzeko.

III. Argitalpen epeak laburragotzeko neurriak

Lehengoz eta behin esan behar da ezen, Aldizkaria prestatzen duten unitateen plantilak handiagotu ezean, egungo baldintzetan zaila dena, egungo atzerapena (ulerturik testua bidaltzen denetik argitaratzen den arte doan tartea) saihestezina dela, baliabideak ez direlako nahikoak eta Aldizkaria prestatzeko prozesua zaila delako. Arazo hau aztertzen denean bi gorabehera hauek hartu behar dira kontuan: a) Nafarroako Aldizkari Ofiziala egunkari ofizial eta mistoa dela, hau da, Komunitate Autonomokoa (Foru Komunitatekoa) eta Probintziakoa, aldi berean; hortaz, bertan argitaratzen dira probintzia anitzetako komunitateetan bi aldizkaritan, hots, Komunitateko Aldizkarian eta Probintziakoan, argitaratzen diren guztiak. b) Ale bakoitzean bi edizio argitaratzen direla, gazteleraz eta euskaraz, eta horrek itzulpen-lan handia dakarrela bere baitan, euskarri informatikoek horretan ezer balio ez dutelarik.

Alabaina, honako neurri hauek hartzeko bidean gaude:

1. Aldizkaria prestatzean parte hartzen duten unitateetako plantilak handiagotzeko posibilitatea, batez ere ezinbestez horrelako handiagotzea behar dutenetan.

2. Unitate horietako plantilak handiagotzeko zailtasunen aurrean:

2.1.Une honetan kontratatzen ari dira, lehiaketaren bidez, testuak euskaratzeko lanak (gaur egungo itzultzaileen plantilaren euskaratzearen gaitasuna gainditzen duen lan-zatia, beti ere): esan den bezala, tartean badira euskaratzeko oso testu luzeak, eta haien itzulpenak trabatu egiten du argitalpena edo eragin larria du prozesu orokorrean.

2.2. Gaztelerazko ediziorako, testuen prozesua kanpoan kontratatzea areagotuko da, batez ere Udalek edo Justizia Administrazioak informatizatu gabe bidaltzen dituen jatorrizko testuak.

2.3. Toki entitateek testuak informatizatuta eta, ahal delarik, euskaratuta bidal ditzaten egiten ari diren kudeaketak areagotuko dira.

3. Konposaketa Bulegoak Aldizkaria editatzeko sistema berria erostea, hardware eta softwarea, Aldizkaria prestatzen eta konposatzen zalutasun handiagoa ekarriko duena.

4. Galdera toki entitateen kontratazio-iragarkien argitalpenari buruzkoa denez, enkanteen zein obra eta zerbitzuen lehiaketen iragarkiak lehentasunez argitaratu beharreko testutzat hartuko dira.

IV. Aldizkaria jasotzeko atzerapena izatean eragina duten gorabeherak.

Aldizkaria Posta Zerbitzuaren bidez bidaltzen zaie harpidedunei.

Aldizkari Ofiziala inprimatu eta zabaltzeko lana bere unean enpresa bati esleitu zitzaion, jendaurreko lehiaketaren bidez. Kontratua betez, enpresa honen betebeharra da harpidedunentzako Aldizkari Ofizialak Posta zerbitzuko bulegoetan eta plastikozko poltsetan sartuta uztea. Eragiketa hau Aldizkariak duen data baino aurreko egunean egiten da, justifikatzen diren salbuespenak alde batera utzita, eta ondoren Aldizkaria Postaren bidez zabaltzen da, gainerako gutunak eta abar bezala.

Harpidedunek Aldizkaria jasotzeko paira dezaketen atzerapena Posta Zerbitzuari egotzi behar zaio. Nafarroako Gobernuaren menpekoa ez denez, Gobernuak ezin dio eskatu Zerbitzuari banatzean zaluago joka dezan. Alabaina, ahalezkoa bada, horren alde zerbait egitea ez da bazterrean uzten.

Azkenik, izenpetzen duen Kontseilariak adierazi nahi du zerbitzua onfi funtzionatzearen aldeko kezka baduela, galdera egin duen parlamentariak berak bezala, baina adierazi behar dio, baita ere, mugak dituela zerbitzua hobetzeko, hainbatetan gertatzen den bezala, eta batez ere gaur den egunean dauden gastu-murrizketak egonda, baliabide beharrezkoak eskura edukitzea zaila baita.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11n

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

---

# Gure Komunitateko farmazi-produktuen preskripzioari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak gure Komunitateko farmazi-produktuen preskripzioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 21eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak, galdera egin du botika generikoei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Hona Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra egindako galderaren zati ezberdinei emandako erantzunak:

1. zatia:

Generiko deritzen botiken kopurua, hau da fantasiako markarik gabe, printzipio aktiboa eta

merkaturatzen dituen laborategiaren izena baino ez daramatenena, 102.082 izan da, 1996an Nafarroan agindu diren ontzien %1,45.

2. zatia:

Botika generikoen merkaturatzearen ondorioz, Foru Komunitatean, datozen 5 urteetan, zenbateko aurrezki ekonomikoa izango den eta botikok zer merkatu-bolumena eginen duten, ezin da kalkulatu. Osasun Ministerioak emandako zabaltagiriak ez du argitzen hurrengo urteetarako aurreikusten den generikoen sartze-erritmoa, beraz, ezin jakin orain hurrengo bosturtekoan zenbateraino izango diren eskuragarri espezialitate horiek merkatuan. Galdegileak jakingo duenez, generikoak sartuko badira, Ministerioak baimena eman behar du patentea erabili ahal izateko, eta konposatuak homologatu egin behar dira, bioekibalentzia analisien ondoren. Zabaltagiriak baimena emateko prozedura ezarri du, baina laborategien eskarien menpe egongo da konposatuok merkatuan aurkitu ahal izatea.

3. zatia:

Industri Departamentuak hitzarmena izenpetuta dauka CINFA laborategiekin, generikoak merkaturatzeko.

Lehen mailako osasun laguntzako zentroek 1996 eta 1997rako duten helburuetako bat dugu generikoen kopurua gehitzea. Horren ondorioz, generikoen kopurua %1,2 izatetik (1995eko abendua) %1,96 izatera igaro da (1996ko abendua).

Osasun Departamentuak botika generikoen erabilketa bultzatuko du, zentro publikoetako farmazi zerbitzuen bitartez eta botikak agintzen dituzten medikuei aholkua eta prestakuntza eskainiz

Hori guztia jakinarazten dizut, Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1997komartxoaren 13an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

---

## “Larreak sortu eta hobetzeko neurriaren gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa” izeneko azterketari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Larreak sortu eta hobetzeko neurriaren gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa” izeneko azterketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 21eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Larreak sortu eta hobetzeko neurriaren gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa izeneko azterketari buruz eginiko galdera, idatzizko erantzuna eskatu duena, dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarririkoaren babesean, hau dio:

Galderak egin ziren ordenean erantzunen ditut:

1.- Deialdiaren eguna.

1995eko azaroaren 22a (1995eko azaroaren 22ko 114 zk.ko NAO).

2.- Proposamenak aurkezteko mugaeguna.

1995eko abenduaren 22a

3.- Proposamen ekonomikoak irekitzeko eguna.

1996ko urtarrilaren 6a.

4.- Aurkezturiko proposamenen zerrenda

| | Eskainiriko aurrekontua, BEZa barne | | Aurkezteko mugaeguna |
|---|---|---|---|
| Proposatzailearen izena | Pezetak | Oharrak | |
| DESHERCA INGENIEROS, SA (MADRIL) | 4.740.087 | | 6 hilab. |
| CIES, SL (IRUÑEA) | 4.988.000 | | 4 hilab. eta 15 egun |
| UPNA-OTRI (LUIS SARRIES) (IRUÑEA) | | Lehiaketan zeuden 6 azterketarako eskaintza bakarra aurkeztu zuen, guztira 29.601.000 pzta, egiten zuena. | 26 aste |
| SEINGRA (IRUÑEA) | Proposamena ez zen onartu, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legeko 198.1 artikuluan ezarririkoarekin bat, gizarte xedeak ez baitzuen zuzeneko harremanik kontratuaren xedearekin. | | |
| EIN ESTUDIOS INFORMES NAVARRA, SL (TUTERA) | 4.675.000 | | 6 hilab. |
| CENTRE D'ESTUDIS DE PLANIFICACIO, SA (BARTZELONA) | 4.396.400 | Eskaintzetan merkealdiak aurkeztu zituen, lehiaketan zeuden 6 azterketatik zenbat esleitu eta honela: * 4.176.580 pezeta bi azterketatarako, * 3.956.760 pezeta hiru azterketatarako | 6 hilab. |
| DENDROS, SL (MADRIL) | 4.900.000 | | 6 hilab. |

5. Lehiaketaren esleipen-hartzailea, aurrekontua eta aurkezteko epea:

• Enpresa esleipen-hartzailea: Centre d'Estudis de Planificació, S.A.

Helbidea: C/Aribau 168-170
08036 BARTZELONA
Tf: (93)2188198
Faxa: (93)2185366

• Aurrekontua: 3.956.769 pezeta, BEZa barne

• Aurkezteko epea: 6 hilabete, kontratua izenpetu eta biharamunetik kontaturik. Gero 1996ko abenduaren 6a arte luzatu zen.

6. Kontratua izenpetu zeneko eguna

1996ko maiatzaren 6a

7. Azterketa aurkeztu zeneko eguna

1996ko abenduaren 6a

8. Haren ondorioen laburpena

a) Neurriaren betetze-mailari buruzko adierazle finantzario eta fisikoak

915,05 milioi pezeta inbertitu dira, programan hasiera batean aurreikusten zenaren % 180,86, 56 udalerritako (aurreikusten zirenen % 400etako) herrilarreak sortu eta hobetzeko 120 proiektutan, hots, 5b) xedeko udalerrien % 51tan.

Hobekuntzekin 20.292 ha. ukitu dira, hots, 5b) xedeko eskualdeko larreetako azaleraren %13,6. 556.281 m. itxi dira, urez hornitzeko 90.279 m. hodieria eta 302 aska ezarri, 6.934 $m^3$ ur bildu eta 150.832 m. oihanbidetan jardun.

Gastu horiek posible egin dute 102.904,2 abelburu larri elikatzea, 746 abeltzainenak, hots, 5b) xedeko eskualdeko Gizarte Segurantzan nekazari araubidean afiliaturik daudenen %27renak. Horrek, batez-beste, 125na mila pezetako dirusarrera garbi handiagoak ekarri dizkie urtean urtean.

b) Neurria burutzeko administrazio jardunbidea

Espedienteak, kasuen %51,4tan toki entitateek eskaturik bideratu dira, %37,8tan abeltzainek eskaturik eta %10,8tan Administrazioko teknikariek eskaturik.

Larre Bulegoak aldez aurretik kasuan kasuko proiektuaren txosten tekniko-ekonomikoa emanik, egin beharreko jarduketa onartzen da.

Ondoren, kasuan kasuko toki entitateak burutzeko obrak kontratatu egiten ditu, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko teknikariek aholkuak emanik. Haren burutzea ere kontrolatzen dute teknikari horiek, ordaindu aitzin kasuan kasuko ordainketak baimentzen dituztenek.

Jardunbidea arina da, jarduketa onartu eta gero. Aurrekontuen mugek artzerapenak baldintzatzen dituzte. Izan ere, toki entitateen eskariek horretarako konsignaturiko finantza eskuragarritasunak baino gehiago egiten dute.

c) Ondorioak

1. Udalek oso ongi deritzete jarduketen emaitzei kasuen %64,84tan eta ongi %35,1tan. Ez da kontrako iritzirik jaso.

2.- Kasuen % 63,9tan deusik ekoizten ez zuten lurretan edo erabilitzen ez ziren larretan jardun da.

3. Abeltzaintzek oso begi onez hartu dituzte urez hornitzeko jarduketak.

4.- Artzaintzarako abelburuak gehitu egin dira, gehienbat, haragitako abelgorriak eta esnetako aziendazuriak: 1.611 haragitako behi, 6.866 esnetako ardi, 1.860 haragitako ardi eta 418 behor.

5.- Herri horietan, obrak egiten ari zirela, aldi baterako 400 lanpostu sortu dira.

6.- Jarduketa horiek abeltzainen errentan izaniko eragina 91,5 milioi pezetatik 140,6 miloi pezetara bitarte zenbatesten da urtean urtean. Hots, ukituriko udalerrietako nekazaritza-errentaren balio erantsiaren %1,3tik 2,4ra bitarte.

7.- Larreetan esku sartu izanak aldarazi du matenimendu gastuak estaltzeko eta eginiko inbertsioa berreskuratzeko herrilarreak erabiltzeagatik dauden udal kanonen aplikazioa. Udal entitateek beste dirusarrera garbi batzuk eskuratu dituzte, jarduketari egoztekoak, 10etik 50 milioira bitartekoak urtean urtean.

8.- Abereak erabiltzeko mahuka gutxi eraiki dira.

9.- Hasierako jarduketa urtean urteko beste mantenimendu-jarduketa batzuekin osatzen ez bada, larrea, eginiko hobekuntzaren arabera, lehenagoko egoera itzul daiteke. Neurriaren kudeatzaileek kontutan hartu behar dute eskusartze hori. Jarduketen % 5,5 ez dira gaurregun erabiltzen ari.

10.- Oihanbideetako jarduketak. 150 km. 114,9 milioi pezetako diru-ekarpenaren beharra eduki dute, inbertsio osoaren %12,56.

Oihanbideak sendotzeko kostua, 1.700 pezeta/m egokitzekoa baino askoz garestiagoa da, 200 pezeta/m.koa dena, kasu batzuetan aski izan litekeena.

11.- Oihanbideen eraikuntza eskualde bat hobeki gozatu eta erabiltzeko azpiegitura neurri bat bezala egin liteke.

12.- Neurria baikorra izan da, baita burutzea ere, baina eskualdeko abeltzainen egoera eta haien iraupenerako itxaropena aztertu beharko lirateke, larreetan esku sartu aitzin egin beharreko azterketa gisa.

Iruñea, 1997ko martxoaren 13a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura: Ignacio Martínez Alfaro

---

# "Lurzatiak biltzeko eta nekazaritza aldez aurretik uzteko neurrien gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa" izeneko azterketari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Lurzatiak biltzeko eta nekazaritza aldez aurretik uzteko neurrien gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa" izeneko azterketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 21eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

José Javier Sánchez Turrillas Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak Biltzarreko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarririkoaren babesean, Nafarroako herri xeheetako Lurzatiak biltzeko eta nekazaritza aldez aurretik uzteko neurrien gizarte eta ekonomi eraginaren ebaluazioa (1990-1993) izeneko azterketari buruz eginiko galdera, idatzizko erantzuna eskatu duena, dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak hau dio:

Galderak egin ziren ordenean erantzunen ditut:

1.- Deialdiaren eguna.

1995eko azaroaren 22 (1995eko azaroaren 22ko 144 zk.ko NAO)

2.- Proposamenak aurkezteko mugaeguna

1995eko abenduaren 22a

3.- Proposamen ekonomikoak irekitzeko eguna

1996ko urtarrilaren 6a

4.- Aurkezturiko proposamenen zerrenda

| | Eskainiriko aurrekontua, BEZ barne | | Aurkezteko gehieneko epea |
|---|---|---|---|
| Proposatzailearen izena | Pezetak | Oharrak | |
| DESHERCA INGENIEROS, SA (MADRIL) | 4.740.087 | | 6 hilab. |
| CIES, SL (IRUÑEA) | 4.988.000 | | 4 hilab. eta 15 egun |
| UPNA-OTRI (LUIS SARRIÉS) (IRUÑEA) | | Lehiaketan zeuden sei azterketetarako eskaintza bakarra aurkeztu zuen, guztira 26.601.000 pzta. egiten zuena | 26 aste |
| TERESA LIZARRAGA (AOS-LONGUIDA) | 4.500.000 | | Ez da aipatzen |
| CENTRE D'ESTUDIS DE PLANIFICACIÓ, SA (BARTZELONA) | 4.350.000 | Eskaintzetan merkealdiak aurkeztu zituen, lehiaketan zeuden sei azterketetarik zenbat esleitu eta horrela: * 4.132.500 pzta. bi azterketatarako * 3.915.000 pzta. hiru azterketatarako | 6 hilab. |

5.- Lehiaketaren esleipen-hartzailea, aurrekontua eta aurkezteko epea

• Enpresa esleipen-hartzailea:
Centre d'Estudis de Planificació, S.A.
Helbidea: c/Aribau, 168-170
08036 Barcelona
Tf: (93)2188198
Faxa: (93)2185366

• Aurrekontua: 3.915.000 pezeta, BEZ barne

• Aurkezteko epea: 6 hilabete, kontratua izenpetu eta biharamunetik hasita.

6.- Kontratua izenpetu zeneko eguna

1996ko azaroaren 6a

7.- Azterketa aurkeztu zeneko eguna

1996ko azaroaren 6a

8.- Haren ondorioen laburpena

Azterketaren azkeneko ondorioak 3 ataletan sailkatzen dira:

1.- Neurrien betetze-maila eta eraginari buruzko ondorioak.

2.- Kudeaketan sorturiko arazo nagusien zioak.

3.- Gomendioak.

1.- Neurrien betetze-maila eta eraginari buruzko ondorioak.

1.1. Finantza betetze-mailari buruzkoak.

*Lurzati kontzentrazioa*

Finantza betetze-maila 1990eko abenduan hasi zen. Gastu publikoko aurreikuspenek guztira 507.000.000 pezeta egiten zuten.

Programa itxi zenean, 1994ko ekainean, burutua zenak 672.649.266 pezeta egiten zuen. Horrek esan nahi du baliabide publikoak % 15,72 gehitu direla.

*Nekazaritza aldez aurretik uztekoak*

Hasiera batean aurreikusiriko gastu publikoa 77.600.000 pezeta egiten zuen.

1993ko abenduan 27.900.000 pezetako gehikuntza baimendu zen.

Bi neurri horietarako, 3 zio jatorrizko zeuden gehikuntza baimentzeko: diru-unitatearen balora-

zio nominal eta errealerako jarraiko indexikazioak; pezetaren debaluazioa ECUarekiko eta 1993an programari ekarririko baliabide berriak.

1.2. Eskusartzearen lorpen nagusiei buruzkoak

*Lurzati kontzentrazioa*

Aurreikusiriko 4.182 hektareetarik, 6.839 bildu dira eta 12.401 biltzen ari dira.

Burutua denak 21 udalerri ukitu ditu, hasiera batean 10 ukitu zirela pentsatzen bazen ere.

Gutxitze-indizea 4,7koa izan da, espero zen 6,2koaren ordez.

*Nekazaritza aldez aurretik uztekoak*

88 abeltzainek utzi dute eta ez, espero zen bezala, 68k. Guztira 642,32 ha. utzi dira.

Abeltzain lagapen-hartzaileak 50 dira.

Espedienteak ustiategi txikiei dagozkie. Utziriko lurrak, batez-beste, 119,9 hektareakoak dira. %39, baina, 6 hektarea baino txikiagoak dira.

Nekazari lagatzaileen batez besteko adina 58 urtekoa da eta lagapen-hartzaileena, 37 urtekoa.

Lagapenen % 16,85 etxe barrukoak dira, gurasoengandik seme-alabengana. Ustiategi horietan ez da benetako aldaketarik gertatzen.

Espedienteen % 35etan ez dago lagapen-hartzailerik.

Gehiago dira abeltzaintzako ustiategiak nekazaritzakoak baino.

1.3. Inguruaren ezaugarriei buruzkoak

*Lurzati kontzentrazioa*

1989-93 programa operatiboan 5b) eskualdeak Nafarroako iparraldea biltzen du, hots, Ipar-menbebaldeko I eta Pirinioak nekazaritza-eskualdeak (Irunberriko eta Urraulbeitiko udalerriak ezik).

Azken urte hauetan populazioa ez da berdin gutxitzen ari eskualde guztietan. Populaziogunerik handienak gehitzen ari dira, baina txikienak eta gutxien eusten ahal zaienak gutxitzen ari dira.

Nekazaritzako lan-merkatua murrizten ari da eta landalurrak ere bai (% 16,85).

Abeltzaintzako ekoizpena gutxitzen ari da, errendimenduak hobetzen ari badira ere.

Neurri horrek eskualdean azpiegiturak sortzea ere biltzen du. Eragile guztiek oso ongi deritzote neurri horri, orokorrean, lurraldeko komunikazioa hobetzen laguntzen baitu eta bizilagun guztiak onuradun dira, edozein delarik haien lanbidea.

*Nekazaritza aldez aurretik uztekoak*

Laguntza araubide nazionalekoak dira eta ez dira bakarrik 5b) eskualdekoak.

1 eta 3 azpieskualdeek (Elizondok eta Zangozak, hurrenez hurren) espedienteen % 75 biltzen dituzte.

1.4. Ondoriozko eraginari buruzkoak.

*Lurzati kontzentrazioa*

Errendimenduak gehitu dira, lurraldea hobeki probetxatzen baita, hesiak kendu eta berezkoa larreak belardi bihurtu direlarik.

Jabetza argitu eta eragitean, bultzatu egiten dira elkarteen sorrera eta ekoizpen aldaketak.

Ustiapen gastuen gutxitzearen zioak hauexek dira: erabiltzen den denbora gutxitzea (%15-50), makinak gutxiago higatzea, materiak probetxatzea eta erregaiak gutxiago erabiltzea (25-40 milioi pezeta gutxiago). Ondorio hori ondorengo bi urteetan nabarmentzen da. Izan ere, lehenengo bi urteek inbertsioak behar dituzte lurzati berriak egokitu eta hobetzeko.

Gutxi horiek lurraren gartestitzean, % 10etik 15era bitarte, adierazten da.

*Nekazaritza aldez aurretik uztekoak*

Ustiapen lagapen-hartzaileetan izaniko aldaketek adierazten dutenez, jarduera gehitu egin da, ustiategia handitu baita. Horrek erraztu egiten du hura sendotzea.

Etxe barruko lagapenen kasuan, horiek edonola ere gertatuko ziratekeen. Hori horrela, eragin nabaria da lagatzaileak hartzen duen dirulaguntza, haren bizimodua hobetzen baitu.

1.5. Neurriak lurraldean duen eraginari buruzkoak

*Lurzati kontzentrazioa*

Orokorrean, esan daiteke lurzati kontzentrazioaren ondoren ez dela aldaketarik gertatzen landalurretan.

Kontzentrazio jardunbideak gehiago izan dira I eskualdean, ukituriko azalera txikiagoa bada ere. Jarduketen % 57k eskualde horretako udalerrien % 25 ukitu dituzte. II eskualdean, jarduketen % 47,6 udalerrien 22 biltzen dira.

*Nekazaritza aldez aurretik uztekoak*

Neurriak lurzoruaren erabilpenean aldaketak eragin bazitzakeen ere, horiek oso gutxi izan dira. Landaketa motetan ez da aldaketa adierazgarririk

igarri. 3 azpieskualdean badago joera larre berriak sortzeko, maldatsuagoak diren lurrak utzi dira eta.

1.6. Neurriaren eragin makroekonomikoari buruzkoak.

*Lurzati kontzentrazioa*

Baloraturiko onurek, bukatu eta bi urtera, guztira 37,8 milioi pezetatik 85,4 milioi pezetara bitarte egiten dute. Zifra horrek, bestelako eraginik kontutan hartuko ez balitz, ez lituzke inbertsioak justifikatuko, finantza errentagarritasuna oso urria baita.

Horregatik, proiektuaren errentagarritasuna, kasu horietan, ikuspuntu sozialetik justifikatzen da, onuradunen onagatik eta denbora aurrezteagatik.

*Nekazaritza aldez aurretik uztekoak*

Lehen esan dugun bezala, lagatzailearen bizimodua hobetezea eta, etxe barruko lagapenen kasuan, ustiategiarendako berarendako laguntza osagarria da.

2. Kudeaketan sorturiko arazo nagusien zioak.

*2.1. Lurzati kontzentrazioa*

Bi eratan egin da:

• 1990-1993 programa burutzerakoan aurkituriko arazoak, eta

• Antolamendu kontuak

2.1.1. Programa operatiboarekin zerikusirik duten arazoak

Lurzati kontzentrazioaren jardunbidearen batez besteko iraupena luzea da, 7,9 urte, II eskualdean 10,3 urtekoa delarik.

• programaren iraupenarekin (egitez, 3 urtekoarekin) ez dator bat. Hori dela eta

• zaila da beste neurri batzuekin osagarritasuna eta elkargarritasuna ezartzea.

• ea zer puntutaraino hain luzea den neurri baten duen benetako eraginik sektorearen berrikuntzan eta den gai ustiategia uztea eragozteko.

Geldiarazi diren jardunbideetan eginiko inbertsioek gastuak ekartzen dizkiote Administrazioari, inolako ordainik gabe.

